



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Andoni Alvarez Lete

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu

Marta Lasa Goñi
Xabier Fondón Pajares
Garazi Usandizaga Zubiria
Iosu Mateo Torrillos
Haizea Barandiaran Zubillaga

PSE-EE

Maider Lainez Lazcoz
Ascensión Parrón Peguero
Aritz Alkain López
María Belén Moreno Méndez

EAJ-PNV

Imanol Goenaga Egibar
Idoia Mikelez Alonso
M^a Sagrario Ruiz Fernández

Elkarrekin Podemos Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	0000012
Eguna	2023/07/27
Hasiera	19.00
Amaiera	19.48

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Larraitz Arriola Larrarte (EH Bildu)

Diego Barrasa Ruiz (EH Bildu)

José Luis Verdasco Gutiérrez (PSE-EE)

Gai Zerrenda:

Orden del Día:

Xedapenak

1. Andoingo Udaleko ordezkarien izendapena Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartean (Behemendi).
2. Onartzea, hasierako izaeraz, Andoainen enplegua, ekintzaitza eta negozioak modernizatzea eta sendotzea sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza proposamena.
3. HEA 28 Sorabilla Industrial eremuko ZJ-28.1 azpierzurako Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.
4. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, aitortu gisa, onartzeko

Parte Dispositiva

- 1.- Nombramiento de los/as representantes del Ayuntamiento de Andoain en Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartea (Behemendi)
- 2.- Aprobación, con carácter inicial, de la propuesta de Ordenanza reguladora de las bases que establecen la concesión de ayudas para el fomento del empleo, el emprendimiento y la modernización y consolidación de negocios en Andoain.
- 3.- Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la parcela AD 28.1 del AIU 28 Industrial de Sorabilla
- 4.- Propuesta de aprobación de la moción de la candidatura de Andoain para concurrir a la convocatoria de Reconocimiento como Ciudad



- proposamena.
5. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, hautagai gisa, onartzeko proposamena.
6. 2023.06.28an Osakidetzako Langileen egoera dela eta aurkeztutako mozioa eta EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa.
7. EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeek hizkuntza eskubideen aurkako epaien aurrean aurkeztutako moioa.
- Amiga de la Infancia como reconocido.
- 5.- Propuesta de aprobación de la moción de la candidatura de Andoain para concurrir a la convocatoria de Reconocimiento como Ciudad Amiga de la Infancia como candidato.
- 6.- Moción presentada el 28.06.2023 relativa a la situación de los trabajadores de Osakidetza y moción alternativa presentada por el grupo municipal EAJ/PNV.
- 7.- Moción presentada por los grupos municipales EH Bildu y EAJ/PNV ante la sentencia contraria a los derechos lingüísticos.

Kontrola

8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 807/2023 zenbakidunetik 1306/2023 zenbakidunera.
9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 8.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 807/2023 y la nº 1306/2023.
- 9.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Kaixo, arratsalde on eta ongi etorri uztailaren 27ko ohiko udalbatza honetara. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet hona etorri zareten bai zinegotzi eta udal langileei.

“Besterik gabe, udalbatza honekin hasiko gara.”

1.- Andoingo Udaleko ordezkarien izendapena Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartearen (Behemendi).

Indarrean dagoen Tokiko Korporazio eraentza juridikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduko 38 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartearen (Behemendi) estatutuen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, elkartearen partaide diren pertsona juridikoei elkartearen ordezkariak izendatu behar ditu.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2023ko uztailaren 18ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Puntu honetan adierazi nahi dugu orain arte Andoingo udalak Behemendirekin egindako bileretan ordezkari ezberdinak parte hartu duten arren, ez duela ordezkariak izendaturik edo izan Behemendin.

“Kontua da legealdi berriarekin batera Behemendiko ordezkariak harremanetan jarri zirela eta esan zuten ba komeni zela, ordezkari finko bat edo ordezkari bat izendatzea Andoingo udalak eta idazkariarekin hitz egin ostean, berak ere ikusten zuen egokia zela. Hori zela egin beharrekoa. Eta orduan ba proposatzen dizuegu ni izatea ordezkaria eta nire ordezkaria, Marta Lasa.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi. Gure aldetik ez dugu inongo arazorik izendapenarekin, baina bai batzordean eskatu genula Idazkariaren txostena, eta momentuz ez dugu jaso.

“Decía que que en principio por nuestra parte no hay ningún inconveniente con los nombramientos,



pero sí que en la comisión de personal se pidió que se nos mandará un informe, pues explicando un poco esa parte. Y bueno, pues como no lo hemos recibido, nos vamos a abstener. Eskerrik asko.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Kontuan izango dugu zuen eskakizuna. Idazkariak zerbait esan nahi du?”

Idazkariak hartu du hitza, honakoa adierazteko:

“Besterik gabe, Udala ez dakit ze urtetatik Behemendi elkarteko kide da eta estatutuek horrela adierazten dutez. Beste udalek izendatzen dituzte Behemendin bere ordezkariak, gainontzeko udalez gaindiko erakundeetan bezalaxe. Ez dut uste azalpen gehiagorik behar duenik, baina bueno, gainera, uste dut akordio-proposamenean agertzen dela Behemendiko Estatutuetoako artikulua, ez dago azalpen gehiagorik eta hortaz gain, legegintzaldiaren hasieran badakizue udalak izendatu behar dituela bere ordezkariak parte den erakundeetan. Ez dago nire aldetik gehiago esateko.”

Alkate jaunak dio:

“Hala ere, xehetasun gehiago nahiko baduzue edo, bidaliko genizueke.”

Lainez andreak, erantzuten du:

“Bai, bai, guk batzordean eskatu genuen. Ya la solicitamos en la comisión y se nos dijo que se nos mandaría antes del pleno y bueno, pues como no lo hemos recibido, vamos a abstenernos. Eskerrik asko.”

Guzti hau kontuan izanik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH BILDU eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE eta EAJ-PNV udal taldeetako zinegotzien abstentzioarekin, honako erabakia hartzen du:

Lehena: Andoingo Udaleko ordezkariaren izendapena Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartean (Behemendi):

1. Titularra: Alkatea, Andoni Álvarez Lete jauna.

2. Ordezkoa: 1. Alkateordea, Marta Lasa Goñi andrea.

Bigarrena: Erabaki honen berri ematea interesdunei eta Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkarteari (Behemendi).

Hirugarrena: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratu.

3. Onartzea, hasierako izaeraz, Andoainen enplegua, ekintzailtza eta negozioak modernizatzea eta sendotzea sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza proposamena.

Konstituzioko 140. Artikuluak udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren ganean, Toki Jardunbideko Oinarriei buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeke ahalmena aitortzen die.

Ikusirik, *Andoainen enplegua, ekintzailtza eta negozioak modernizatzea eta sendotzea sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza* proposamena.

Ikusirik, Idazkariak 2023.07.18an egindako txostena.

Ikusirik, 2023.07.14an Emakume eta Gizonen berdintasun Teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Batzorde Irizpenemaileak 2023ko uztailaren 19an emandako irizpena.

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Pasa den astean Enplegu Batzordean ikusi genuen gai hau. Hau da, zehazki, Andoainen enplegua, ekintzailtza eta negozioak modernizatzeke eta sendotzeke ordenantza proposamena. Batzordean aipatu genuen bezala, bost lerro nagusi ditu. Batetik, izango litzake kontratazio diru-laguntzak bestetik, ekintzailtza eta transmisio diru-laguntzak, hirugarrena lokalak alokatzeke edo coworking egiteke diru laguntzak, laugarrena, digitalizaziorako diru-laguntzak eta azkenik, lokalen berrikuntza edo hirigarritasunerako diru-laguntzak.

“Ordenantza honekin nahi dena da, bai Andoingo enpresei eta bai Andoingo merkatariiei behar dituzten baliabideak eskaini eta erraztasunak eskaini udalaren aldetik.



“Aipatu genuen baita ere batzordean, irailean onartuko dela behin betikoz ordenantza hau. Baina bitartean, jakiteko bai enpresek eta bai merkatariak aurretik informazioa helarazi zaie ordenantza honen hartzaileei. Hori aipatu genuen eta horrela gelditu ginen. Ez dakit gai honen inguruan norbaitek zerbait esateko duen.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guk aipatu nahi dugu, iruditzen zaigula ordenantza garrantzitsua dela, aurreko urtetik datorren ekimen baten ondorio bat da. Eta bereziki ba digitalizazio alorrean eta berrikuntza alorrean arreta jartzen du eta uste dugu positiboa dela, baikorra izango dela bai tokiko merkatarietzako, tokiko ehun ekonomikoarentzat. Horixe aipatu nahi genuen.

Alkate jaunak esaten du:

“Bai, Goenaga jaunak ondo esan duen bezela, hau aurreko legealditik datorren ordenantza bat da eta gaur hemen onospena emango diogu, baina esan bezala aurretik datorren ordenantza bat da.”

Guzti hau kontuan izanik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honako erabakia hartzen du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, *Andoainen enplegua, ekintzaitza eta negozioak modernizatzea eta sendotzea sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza.*
2. Administrazio-espedientea jendurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.
3. Espedientea jendurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

4. HEA 28 Sorabilla Industrialaren eremuko ZJ-28.1 azpierenmurako Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.

Kontuan izanik, Alkateak, 2023ko otsailaren 15eko 305/2023 zenbakiko ebazpenaren bidez, hasierako izaeraz onartu zuela HEA 28 Sorabilla Industrialaren eremuko ZJ-28.1 azpierenmurako Xehetasun Azterketa, Ingenia 2014ko industria-ingeniari teknikoaren Hur Gorostiza-goiza Bikarregi jaunak 2023ko urtarrilaren idatzitakoa. Dokumentu hori LOW COST EUSKADI SL enpresaren izenean diharduen Giacomo Giovanni Felcher jaunak aurkeztu zuen Udal honetan.

Kontuan harturik, Xehetasun Azterketa eta dagokion espedientea, jendurrean jarri zirela 20 eguneko epean, interesadunek egokiak irizten zituzten alegazioak egin zituzten. Iragarkiak 2023ko martxoaren 30eko 62 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki taulan eta 2023ko apirilaren 11ko Noticias de Gipuzkoa eta Diario Vasco egunkarietan argitaratu ziren.

Kontuan harturik, ebazpena eta Xehetasun Azterketa bera Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentura, URA-Ur Agentziara eta Sustapen Ministerioko Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusira bidali zirela, lege sektorialean aurreikusitako txostenak egiteko.

Kontuan izanik, erabakiaren berri eman zitzaion Gipuzkoa Ur Partzuegoari, egoki iritzitako oharrak egin zitzaion hala badagokio; izan ere, jarduketaren xede den finkaren eta N-1 errepideko irteera-erreiko espaloien publikoaren artean dagoen lorategi-zerrendatik igarotzen den goiko ur-hornidurako sareko hoditeriaren zortasun-zerrendan eragin oso puntuala baitu jarduketak.

Kontuan izanik, ebazpen hori sustatzaileari eta ukitutako gainerako jabeek jakinarazi zitzaizela.

Kontuan izanik, espedientearen jendurreko epean, 2023ko maiatzaren 4an amaitu zena, ez dela inolako alegaziorik aurkeztu, Udaleko behin-behineko idazkariak 2023ko maiatzaren 8an emandako ziurtagirian egiaztatzen den bezala.

Ikusirik Ura-Ur Agentziak, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak egindako aldeko txostenak.



Ikusirik, era berean, udal arkitektoak eta hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2023ko uztailearen 6an egindako aldeko txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Irizpenemalaren 2023/07/13 datako irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Xehetasun azterketa hau hasierako izaeraz jada onartuta zegoen. Jende aurrean egon da, departamendu ezberdinak ere egin dituzte txostenak, ez da alegaziorik aurkeztu eta bueno udal teknikarien aldeko txostenekin, xehetasun azterketa hori behin betiko onartzera proposatzen da.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea LOW COST EUSKADI SL enpresaren izenean diharduen Giacomo Giovanni Felcher jaunak 2023ko urtarrilaren 20an aurkeztu zuen Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko HEA 28 Sorabilla Industrial eremuko ZJ-28.1 azpierenurako Xehetasun Azterketa.

2.- Behin betiko onespenez-erabaki hau, aipatu Xehetasun-azterketa, hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Erabaki hau jakinaraztea LOW COST EUSKADI SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Giacomo Giovanni Felcher jaunari, nola baita ere administrazio-espeditantean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

5. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, aitortu gisa, onartzeko proposamena.

Kontuan hartuz Andoingo Haurrak Ondo Tratatze Tokiko Plana.

Kontuan hartuz UNICEFek egindako proposamena, Andoingo udalerria Haurren Adiskide Hiria dela aitortzekoa.

UNICEFekin konpromisoa sinatu da haurren politikak tokiko mailan bultzatzeko, aintzatespenerako lehen urrats gisa.

Kontuan hartuz Haurren Hiri Lagunaren aintzatespena AITORTUA izateko betekizuna, UNICEFen aplikazio-deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2023ko uztailearen 18ko bileran emandako irizpena.

Barandiaran andreak, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aurreko legealdian Udalbatzak onartu zuen, aho batez, prozesu honetan sartzea. Unicef-ek horrela eskatuta, Udalbatza berria osatu denez, berretsi egin behar da alde batetik bai hautagaitza eta beste alde batetik errekonozimendua.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nosotros sobre todo queremos poner en valor que se siga apostando por este reconocimiento y esta candidatura, porque, bueno, llevamos ya en los últimos años trabajando por el buen trato a la infancia y de hecho se hizo el plan que lleva ese nombre y bueno, trabajando con niñas, niños y adolescentes.

“Ya lo comentamos en su momento, aunque se hablaba de que fuera más una foto, nos alegra saber que sí es así, que seguimos apostando por ello y en ese sentido, sobre todo agradecer y poner en valor tanto el trabajo realizado por los técnicos y por el Departamento de Servicios Sociales, así como por la empresa que nos está ayudando a gestionarlo, porque bueno, entre todos seguimos avanzando y sobre todo también poner en valor la participación de niñas, niños y adolescentes, que ya se creó el foro en su momento y siguen poniendo en valor y aportándonos cosas al municipio, que para nosotros es lo más



importante. Eskerrik asko.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du

1. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa onartzea, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, AINTZATETSIA izateko deialdian.

2. Akordio honen berri ematea UNICEFi.

6. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, hautagai gisa, onartzeko proposamena.

Kontuan hartuz Andoingo Haurrak OndoTratatze Tokiko Plana.

Kontuan hartuz UNICEFek egindako proposamena, Andoingo udalerria Haurren hiri lagun gisa aitortzeko.

UNICEFekin konpromisoa sinatu da haurren politikak tokiko mailan bultzatzeko, aintzatespenerako lehen urrats gisa.

Kontuan hartuz HAUTAGAI izateko alde aurreko baldintza, aplikatu beharreko deialdia onartzeko oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde

Irizpenemaileak 2023ko uztailaren 18ko bileran emandako irizpena.

Barandiaran andreak, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aurrez esan bezela, hau ere berrespena litzateke.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du

Gaia eztabaidatu ondoren, jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du

1.- Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa onartzea, HAUTAGAI izateko Haurren Hiri Lagunaren izaera aitortzeko deialdian parte hartzeko.

2.- Akordio honen berri ematea UNICEFi.

7. 2023.06.28an Osakidetzako Langileen egoera dela eta aurkeztutako mozioa eta EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa.

Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ondoren PSE-EE udal taldeak beste mozio alternatibo bat ere aurkeztu du.”

Jarraian, Alkate jaunak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Iruditzen bazaizue, lehenengo Osakidetzako langileei utziko diet mozioa irakurtzen. Gero errespetatuz, mozioak aurkezteko hurrenkera, PNVko ordezkariari emango diot hitza eta azkenik Alderdi Sozialistari, mozioak irakurri ondoren eztabaida jarriko dugu martxan. Ondoren mozioak bozkatuko ditugu. Lehenengo EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutakoa, gero PSE-EE udal taldeak aurkeztutakoa eta azkenik Osakidetzako langileak aurkeztutakoa.

“Osakidetzako zein ordezkari irakurriko du?”

Jarraian, Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ohartarazpen bat, streaming bitartez grabatu eta zabaltzen da udalbatzaren bilkura, beraz, hori egin ahal izateko parte hartzaileen baimena beharrezkoa dugu.

“Ulertzen dut baimena ematen dezutela edo behintzat kontrakorik adierazten ez baduzue. Jakizue streaming bitartez grabatu eta zabaltzen dela.

Alkate jaunak dio:

“Idazkari jauna, besteetan horrela egin izan dugu, idazkariaren lekura hurbildu eta hortik irakurri hobeto entzuteko.”



Jarraian, Osakidetzako langileen ordezkariak hartu du hitza, mozioa irakurtzeko, honakoa diolarik:

“Kaixo, arratsalde on.

Hernaniko EAGko langilea naiz. Azken bolada honetan oso gogorra da egoera, gauzak aldatu dira eta ez dakigu nora doan gauza. Ni etorri naiz langileen ordezkari moduan eta sortu da Osasungintza publikoaren alde EAG-PAC Aurrera.

“Hala eta guztiz ere lagunduta etorri naiz, sortu direlako, berez ,horrela, behartuak izan gabe herriko plataformak eta nirekin etorri dira Olatu Txuri plataforma kide batzuk. Hor atzean daude.

“Nik irakurriko dut testua, jakin dezazuten zer eskatzen dugun eta gure egoera nolakoa den.

“Osakidetzako EAJE-PCAetako langileak gara. Gure lan jarduera osasun zentroetan egiten duguna ohiko ordutegitik kanpo, besteak beste, gau, astebukaera eta jai egunetan. Bertan zelari, erizain eta mediku bat gutxienez ari gara. Kasu arin zein larriak artatuz.

“Gure jardueran adin guztietako erabiltzaileei zerbitzua ematen diegu, biztanleri pediatrikotik hasi, zaharrenekin jarraitu edota beste biztanleri zaurgarriagoaz ahaztu gabe, (hala nola biztanleri etorkina edota genero indarkeriagatik biktimak) Osakidetzako sarean sakabanatuta gaude hiru lurralde historikoetan.

“Zer salatu nahi dugu? Azken hilabeteko langileen hornikuntza faltak, nagusiki medikuen kategorian, gune hauetan, zerbitzuaren murrizketa nabarmena suposatzen ari dela biztanleri orokorrek orain arte jaso duen zerbitzuan. Modu honetan, zenbait gune mediku hornikuntzarik gabe gelditu da egun jakinetan lanaldi tarte batzuk edo osoan zehar gure lanaren oinarri den hiru kategorietako, zelari, erizain eta medikua lantaldea puskatuz. Horrek biztanleri ematen diogun zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna kinka larriarri jarri ote dezakeen beldur gara.

“Egoera honek oinarriko zerbitzu publiko bati eragiten diola jakinik, gizartean merezi duen eztabaida zabaltzea dugu helburu, beldur gara, egoera honen ezagutza faltak gizartean kalitatezko osasungintza publikoa bermatzeko beharrezkoa den eztabaida demokratikoa oztopatu dezakeen.

“Horrela herritarrei eman nahi diegun osasun arreta egokia helburu jarriarik, zuen udaletxean mozio bat aurkeztea eskatzen dizuegu, helburu hauekin.

“Lehenengoa: Osakidetzari orain arteko PAC_EAG, ordutegi zein lantaldearen osoz osotasunari lanaldi osoan zehar eutsi diezaion eskatzea.

“Bigarrena: Udal Gobernutik PAC_EAG bizi dituen murrizketei errefusa adieraztea.”

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ondoren, nahi baldin baduzue, orain, EAJ eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako mozioak irakurriko dituzte eta ondoren, nahi baldin baduzue, zuen mozioa defendatzeko aukera izango duzue.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guztion helburua eta nahia da, herritarrei osasun arreta egokia ematea. Horregatik, Osakidetzako EAG-PACeko arloak duen garrantzia osasun zerbitzu publikoan eta kontratatzeke mediku nahikorik ez dagoela jabeturik, Osakidetzari hurrengo hau eskatzera gatoz.

“Bat: Etengabeko Arreta Guneetako plazarik ez amortizatzeko eskatzea Osakidetzari.

“Bi: Kontratazio-eskaintza baldintzarik onenetan etengabe irekia edukitzea.

“Hiru, familia-medikuntzan espezialistak diren, mediku gutxi daudenez, txanda horiek antola ditzatela herritar guztiei laguntza bermatzeko moduan.”

Jarraian, Parrón andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“El Partido Socialista presenta una moción, no porque estemos en contra de lo que pedís, todo lo contrario, os damos nuestro apoyo total, pero entendíamos que había que presentar una moción que complementara y exigiera dotar de medios al servicio o sea que fuera más contundente que la que presentáis vosotros. Entonces, voy a leer la nuestra.

“El Pleno del Ayuntamiento de Andoain manifiesta que los puntos de atención continuada son un recurso importante, muy bien valorado por la ciudadanía de Euskadi, por su proximidad y su rapidez a la hora de dar respuestas a los problemas de salud que se plantea la ciudadanía, y también por la continuidad que ofrece la atención cuando los horarios de los centros de salud no están abiertos.

“En este sentido, insta al Gobierno Vasco a que, dado que la pandemia ha disminuido drásticamente



la presión sobre nuestro sistema de salud, aplique las medidas necesarias para la vuelta a la normalidad de todos los servicios en general, y los PAC en particular.

“El Pleno del Ayuntamiento de Andoain manifiesta una apuesta clara por la continuidad del modelo de los puntos de atención continuada, y con ello que deben abordarse todas las posibilidades de mejora, entre otras, más profesionales, más puestos estructurales, menor interinidad de los profesionales, más recursos, más diálogo, mayor coordinación con los equipos de la Unidad de Atención Primaria, una apuesta por el abordaje integral de todas las personas que sean usuarias de estos PAC.”

Alkate jaunak, hartu du hitza, eta honakoa esan du:

“Orain, mozioak, bakoitzak, bere mozioa defendatzeko edo aukera izango duzue, nahi baldin baduzue Osakidetzako langileak edo ordezkariak, nahi duzue zerbait aipatu nahi duzue? Bai, gerturatu.”

Berriro ere, Osakidetzako langileen ordezkariak hartu du hitza eta azalpenak eman ditu.

Alkate jaunak dio:

“Ez dakit EAJko eta PSE-EEko ordezkariak zerbait gehitu nahi deuzen?”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bistan da aipatu den errealitatea eta hori ukazina da. Guk mozio bat erregistratu genuen xehetasunetara joateko ariketa bat eginda. Bistan da oposizioko Alderdi Sozialistarekin ez dugula gaitasunik izan ere, denborarik izan testu bat adosteko, ze bertan eskatzen direnak berretsi ditzakegu bere hortan.

“Baina argi utzi nahiko nuke hori, Osakidetzak arazo bat daukala argi dago, ezin diogu muzin egin horri, eta arazoa konpontzeko aitortu behar da eta identifikatuta da arazoa non dagoen.

“Askotan ezkututzen gara testuinguru konkretuetan, pandemia, bestea, tentsionatu dela. Bai, horrela da, baina baita ere, baita ere, estrukturalak diren arazo batzuk, “evidentemente”, aipatu diren bezala, urte askotatik datozenak eta bueno, neurri hartu beharko zaie hartu ez bazaie, eta EAJK behintzat aipatu kalitatezko zerbitzu hori mantentzea eta eskaintzea bermatu behar dela. Eta alde horretatik, bueno, saiaturako gara bozketa ahalik eta koherenteena egiten.”

Jarraian, Parrón andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak hartu du berriro hitza eta honakoa esan du:

“Nosotros entendemos también que la falta de medios dentro de los PAC es un problema importante a la hora de lo que nos estáis exponiendo entonces, que se dote de medios, pero a la vez que exista, como ya pedimos una mayor coordinación con los equipos, las unidades de atención primaria o una apuesta por el abordaje integral de todas las personas que sean usuarias de estos PAC. Entendemos además que complementa más la vuestra.”

Berriro ere, Osakidetzako langileen ordezkariak hartu du hitza, erantzuteko.:

Jarrian, Lasa andreak, Lehen Alkateordea eta Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu, kasu hontan Osakidetzatik etorri zareten langileei eta kasu honetan Olatu Txuria plataformari.

“Aldez aurretik, bertako, Osakidetzako beste langile batzuekin egin dugu informazio kontraste bat eta bueno, gure aldetik ezin dugu ezer gehiago gehitu. Bai, kasu honetan zuen azalpenak oso garbiak eta txukunak izan dira eta jabetzen gara Osakidetzako langileen egoera oso larria dela, eta hori dela eta, ba, gure, gure aldetik, zuen aldarrikapenekin bat gatoz, hori dela eta, ba mozioa onartuko genuke.

“Bestalde, eta horren ondorioz, ba kasu honetan, EAJ eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako mozio alternatiboekin, ondorioz, ez gaude ados.

“Kasu honetan, ba bueno, zuek emandako azalpenengatik, ez. EAJK, alderdiaren kasuan, puntu batekin ez gaude ados eta harremana dauka kasu honetan, zuek aipatutako lantaldearen bermeak. Aipatzen duzue, gutxienez medikua, erizaina eta zeladorea dagoela kasu honetan zerbitzuan, eta orain udara partean medikua ez baldin badago, ba kasu honetan erizainak ezin duela hartu ardura hori. Azken finean balorazioak ezin dira egin, zentzu horretan ez gaude ados txandak-eta sistema horrekin, ez duelako bermatzen kasu honetan lantalde horren osotasuna.

“PSE-EE alderdiaren kasuan, ba bueno, kasu honetan egia da antzeko proposamen egiten dutela,



baina bueno, ezin da ukatu azken finean profesionalak zuek zaretela, eta zuek aurkeztutako azalpenetan beste ezaugarri eta garantia batzuk ezartzen dituzuela.

“Horren ondorioz, ba hori, zuen mozioa onartuko genuke eta EAJ udal taldeak aurkeztu duenari dagokionez, kontra egongo ginateke.

Jarraian, Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du parte, honakoa esateko:

“Desde Elkarrekin Podemos Andoain queremos manifestar nuestro apoyo a aquellos que no hace mucho tiempo todos considerábamos como indispensables.

“Creíamos que la pandemia nos había hecho reflexionar sobre la necesidad de cuidar a los que nos cuidan, pero vemos con estupor que una vez más nuestros gobernantes anteponen otros criterios a los de ofrecer servicios públicos de calidad, la inversión en medios y personal de la sanidad pública sigue siendo considerada como un gasto, olvidando que redundará en una mejor calidad de vida de nuestras vecinas y vecinos. Es por ello que apoyamos esta moción.

“Expresamos nuestro rechazo a las restricciones que se están dando en el servicio de atención continuada, y nos gustaría no solo pedir, sino exigir a Osakidetza que mantenga y mejore en los horarios y equipos de trabajo en la red de puntos de atención continuada. Por lo tanto, apoyaremos la moción presentada por los trabajadores de Osakidetza.”

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Beste inork ez badu ezer esateko, bozketan jarriko genuke, lehen aipatu dudana bezala, lehenik eta behin, EAJ udal taldeak aurkeztutako mozioa, ondoren, PSE-EE udal taldeak aurkeztutakoa eta azkenik, Osakidetzako langileak aurkeztutakoa.”

Jarraian, Alkate jaunak, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa bozkatara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate jaunak, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa bozketara jarri du eta Alkate jaunaren eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, bozken berdinketa eman da.

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Berdinketa dago. Kasu hontan, mozio honetan, indarreko araudiaren arabera, bigarren bozketara bat egin beharko litzateke, eta kasu hontan alkatearen kalitatezko botoak erabakiko luke.

“Habiendo un empate, de acuerdo con la normativa vigente, debe efectuarse una segunda votación, dirimiendo el desempate el voto de calidad del alcalde.”

Jarraian, mozioa berriro bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, eta Alkate jaunak bere eskumeneko kalitatezko botoa erabiliz, mozioa ez du onartu.

Jarraian, Osakidetzako langileak aurkeztutako mozioa, bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, onartu egin da.

8. EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeek hizkuntza eskubideen aurkako epaien aurrean aurkeztutako mozioa.

Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Irakurtzera goazen mozioa EH Bilduko eta EAJko udal hautetsiok ekartzen dugu bozketara, baina hemen aipatu, Kontseiluak berak sustatutako idatzi bat dela eta, berriki, euskararen eta udalgintzaren aurka egindako epai eta eskubide urraketa baten aurrean egindako proposamena dela.

“Hizkuntza Eskubideen Aurkako Epailearen aurrean.

“Euskalgintzako eragileekin batera, udal honetako hautetsiok zera adierazi nahi dugu:

“Espainiako Auzitegi Konstituzionalak udal legearen aurka udalei euskara hutsez aritzeko aukera ez ezik, emandako epaiak eragin digun kezka larriak ekarri gaitu idatzi hau aurkeztera.



“Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztupoak jartzea delako, helburu horren alde udaletik bideratzen diren hizkuntza-politika guztiz mugatzen baitu. Bide batez esan, herritar guztien hizkuntz eskubideak bermatzen dituen hizkuntza politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2. artikulua berariaz jasotzen baitu berme hori.

“Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza politikak indarrean jartzea eragozten du.

“Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain baliogabetutako udal legea. Era berean, azken inkesta soziolinguistikoak argi erakusten du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu dituen politikak. Beraz, epai hori, euskararen biziberritzean aurkakoa ez ezik, adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzian. Erabakimenaren defentsan. Hona hemen ehunka alkate eta udal ordezkarien presentzia.

“Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxiuak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Epaiaren ondoren, salaketa are eta irmoagoa egiten dugu oldarraldiaren aurka, baina, batez ere euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde.”

Alkate jaunak, gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, por nuestra parte, como no podía ser de otra manera, desde el Grupo Municipal Socialista de Andoain queremos mostrar nuestro absoluto respeto a las decisiones judiciales, las compartamos o no.

“En ese sentido, ya en su momento las y los socialistas en el Parlamento Vasco ya votamos en contra de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi, conocida como Lile.

“En el debate ya explicamos que algunos de sus artículos, en caso de ser recurridos, podían llegar a ser considerados como inconstitucionales, que es un poco lo que ha ocurrido aquí, sobre todo con el artículo 6.2 y, bueno, pues, muestra que no estábamos tan equivocados. En ese sentido, el Grupo Municipal Socialista de Andoain estamos y vamos a estar siempre a favor de la defensa de los derechos lingüísticos, es decir, el derecho que tiene la ciudadanía a dirigirse a la Administración en la lengua que libremente escoja y sin imposición alguna. Y en ese sentido sí que creemos que es el momento de realizar un debate de fondo en relación al camino que queremos transitar, para lograr entre todos el objetivo que debe ser común, que es una mayor euskaldunización de la ciudadanía. Y en ese sentido, pues, tenemos serias dudas en que el aumento del mismo se vaya a conseguir solo imponiendo un idioma de relación en expedientes administrativos en nuestras instituciones, por lo que desde aquí pedimos que se siga trabajando, y también dotando de recursos para que nuestra ciudadanía sea cada vez más euskaldun, pero siempre a favor de la defensa de los derechos lingüísticos. Eskerrik asko.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du berriro hitza, honakoa esateko:

“Ez nuen parte-hartu behar, baina iruditu zait bereziki mingarria esatea inposatzen dela gaur egun hizkuntza baten hautua edo ez. Iruditzen zait euskaldun bezala mingarria.

“Uste dut errealitatek at dagoen diskurtso bat dela hori. Nik uste dut edozein euskaldun hiztunek zailtasun ugari dituela egunerokotasunean eta bere Administrazioarekin kudeaketan egin beharreko tratuan, eta iruditzen zait erabat mingarria esatea gaur egun inposatzen dela euskara, alderantziz, iruditzen zait koherentzia eza erabatekoa. Andoainera etorrita, eh. Udal honek baditu tresna ugari euskara sustatzeko plan ugari, bai etxe barrura, Administrazioa begira, euskalduntze prozesu bat, urte luzez eta martxan jarri dena, bai kanpora begira, gizartearen euskalduntze prozesua sustatzeko. Eta programa guzti horiek, aho batez, onartu ditugu. Udal honetan. Ekimen guzti horiek eta aktuzio inizatiba ugari sartuta daude, aho batez onartu dira udal honetan.

“Beraz, gaur etortzea esanez euskara inposatzen dela hemen, iruditzen zait erabat kontraesankorra gero euskararen alde ateratzearekin eta programa eta plan guzti horiek onartzearekin. Inkoherentzia, gutxienez, inkoherentzia bat. Eta benetan, euskaldun, euskal hiztun bezala mingarria egiten zait gaur udal hontan esatea euskara inposatzen dela. Gutxienez salaketa hori egin nahiko genuke.”

Jarraian, Iparragirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa



esateko:

“Bueno, nik egia esan, ez dut asko gehiago esango, zeren, Lainez andreak nahiko ondo erakutsi du gure posizioa ere. Agian, inposaketa hori. Horretan arrazoa emango dizut, Goenaga jauna, Andoainen ez da inposatzen. Baina, beste eremu batzutan zertxobait bai eta esan nuen bezala, legedia bete beharra dago eta legediak esaten du artikulua hori inkonstituzionala dela eta horregatik guk mozio honen aurka, bueno, barkatu, abstenitu egingo gara.”

Jarraian, Lasa andreak, Lehen Alkateordeak eta Euskararen Normalkuntzarako Zinegotzi Ahaldunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, gure kasuan, oraingo honetan EAJk aurkeztutako mozioarekin bat gatzoz eta adierazpenak berak jasotzen dituen ideiak defendatzen ditugu ere. Azkenaldi honetan kezkatuta gaude euskararen kontra ematen ari diren ekimenekin eta gure ustez, herri bezala aurrerapausoak emateko herri akordioak ezinbestekoak dira, bai, kasu honetan, oinarrian daude mota ezberdinetakoak izan daitezkeenak, politikoak, eragileenak, erakundeenak, baina betiere herri akordioetan oinarrituta. Azken finean, horretan dago gakoa, bai, herri moduan eman behar dugulako erantzuna eta guk gure hizkuntza politika propioa garatu behar dugulako, inolako kanpoko esku hartzerik gabe. Bai. Eta honek eskatzen digu euskaltzale, euskaltzaleon arteko herri-akordioak lehenago esan dudana bezala, momentu honetan garrantzi handikoa delako denok batera egitea. Azken finean, ba protagonismoak alde batera utzita.”

Berriro ere, Lainez andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, yo simplemente voy a insistir un poco en el mensaje que hemos trasladado. La importancia de seguir trabajando y dotando de recursos para que la ciudadanía sea cada vez más euskaldun y muy importante, a la vez que eso también, que siempre se haga una defensa de los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía para que cualquiera pueda elegir el idioma en el que se quiere dirigir. Y en ese sentido, creo que todos deberíamos ir también en esa línea.”

Berriro ere, Goenaga jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Baina hori esan eta gero esaten da Euskadin inposatzen dela. Trakeskeria bat da. Eta Podemosek ere berdin, igual igual, igual. Andoainen ez, baina beste nonbaiten bai. Non esan, izendatu ze herritan Euskal Herrian gaztelania hizkuntza duen norbaiti, ezin ditu bere eskubide oinarritzkoak bermatu gazteleraz. Non? Mesedez. Jo, iruditzen zait ari garela. Benetan karikaturizatu da, eta euskara dagoen egoeran egonda. Iruditzen zait karikatura bat gaur hona etortzea, esatea inposatzen dela euskara eta obligatzen dugula gazteleraz bizi nahi duen norbaiti egitera. Ez, barkatu, hizkuntza ofizialak dira eta norberak askatasun osoz bata edo bestea erabiltzeko aukera eta eskubidea izan behar luke. Tamalez, euskaldunen kasuan hori ez da gertatzen.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak mozioa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, PSE-EE udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, onartu du.

9. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 807/2023 zenbakidunetik 1306/2023 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 807/2023 zenbakidunetik 1306/2023 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

10. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkate jaunak hartu du hitza, eta honakoa adierazi du:

“Udalbatza hau ordezkatzeko dugun lau alderdien izenean eta hemen gauden zinegotzi guztien izenean, uztailen bi albiste txar izan ditugu. Batetik, uztail hasieran udal langile bat hil zen, eta gaur bertan, udalak azpikontratatu zuen enpresa bateko langile bat hil da. Bien familiei, bien senitartekoei eta lagunei gure



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2023/07/27

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 27/07/2023

doluminak adierazi nahi dizkiegu, esan dudan bezala, udal honetako alderdi guztiak eta udalbatza osatzen dugun zinegotzi guztiok gure babesik handiena adierazi nahi diegu bi familia horiei.

“Besterik gabe, uzaileko udalbatza amaitutzat emango genuke. Gehienok oporraldia izango dugu, eta bai hemen zaudeten zinegotziak eta baita ere andoindarrak, oporraldi on bat izan dezazuela. Mila esker.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.48 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriaz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU58a5947d-8607-45b2-99d1-791a9d2a63b3**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>